



SUPER AMARA GABONETAKO X. KROSA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldea eskualdeko atletismo elkarteak, Irungo Udalaren laguntzarekin, SUPER AMARA GABONETAKO X. KROSA antolatu du 2024ko Abenduaren 14an 16:45h-tan.

Bi lasterketa mota egongo da: Haurrentzako lasterketak Luis Mariano zonaldean, eta 5 kilometroko lasterketa herrikoa Irungo erdigunean.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez.

Parte hartzaile kopurua gehienez **1000koa** izango da.

Lasterketari bakoitzak bere erantzukizunpean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak irailaren 25an irekiko dira. Inskripzioaren prezioa aldatu egiten da inskripzioa egiten den dataren arabera, alegia:

- **11€** behin erabiltzeko dortsal-txipa (+donatibo solidarioa egiteko aukera), inskripzioa 2024/11/30 baino lehen eginez.
- **13€** behin erabiltzeko dortsal-txipa ((+donatibo solidarioa egiteko aukera), inskripzioa 2024/12/01-tik 2024/12/13-ra arte eginez.

Koadrilan izena emateak (4 pertsona) ez du kostua handituko. Koadrilak izan daitezke, gizonezkoena, emakumezkoena edo mistoa (aski da gizonezko 1 edo emakumezko 1 egotea).

Izena ematearen zenbatekoa ez da itzuliko antolakuntzari egotzi daitezkeen arrazoiengatik proba bertan behera utzi ezean. Lasterketa, ezinbesteko arrazoi batengatik, hala nola, egoera meteorologiko txarrak, lurrikarak, eraso terroristak, pandemiak, ezohiko osasun-egoerak eta abar, bertan behera utziz gero, izen-emateak automatikoki 2025ko ediziorako baliagarriak izango dira.

Abenduaren 11ra arte, izen-ematearen jabetza aldatu ahal izango da. Horretarako, [Parte-hartzailearen Gune Pribatua](#) erabiliko dute korrikalariak.

Egun horretatik aurrera, salbuespenezko egoeraren bat egiaztatu ahal duten korrikalariak, izen ematea 2025ko ediziorako gordetzeko aukera emango zaie.

3.1 - BANAKA INSKRIBATZEKO MODUA

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com irailaren 25tik aurrera. On-line inskripzioak abenduaren 13an (13tan) itxiko dira. **EZIN IZANGO DA EGUN BEREAN INSKRIBATU**

Pertsonalki Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan izena emateko aukera ematen dugu, Leandro Agirretxe plaza 1. znb, 2. solairua, 8. bulegoa (Palmera Montero eraikina), hurrengo ordutegian: astelehenetik ostiralera 9.00tik 14.00ra.

3.2- KOADRILAN INSKRIBATZEKO MODUA

Koadrilak 4 parte hartzaile edo gehiagokoak izango dira. Helmugara iristen diren lehenengo 4rek puntuatuko dute eta sariak 4 pertsonentzat dira. Koadrilaren inskripzioa Kirolproban bertan inskripzioa egiterakoan taldekako inskripzioari dagokien arloak betetzen. Koadrilen inskripzioa egiteko azken eguna, abenduaren 13an, ostirala (13:00).

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA ETA DERRIGORREZKO TXIPA

Lasterkariaren poltsa Palmera Monteroko eraikinean, Leandro Agirretxe 1 plazan, egokitutako gela batean jaso ahal izango dute:

ABENDUAK 13, OSTIRALA: 18.00 -21.00

ABENDUAK 14, LARUNBATA: 10 -12.30

Txip-dortsala jasotzeko, bai formatu digitalean, bai eta paperean inprimatuta, izen ematearen agiria eramatea gomendatzen da. Egiaztagiri horrek irakurri egingo den QR kode bat du. Bestela, NANA edo nortasun-agiri bat aurkeztu beharko da dortsal-txipa jasotzeko. Pertsona batek beste korrikalari baten dortsala hartu nahi badu, izen ematearen agirira aurkeztu beharko du. Inskripzioaren egiaztagiria izen emate-prozesuan emandako posta elektronikokoan jasoko dute partehartzaileek.

5. ARTIKULUA - LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek jasoko duten poltsan ondorengo hauek egongo dira: dortsal- txipa, lasterketako elastiko teknikoak, eta ezuzteko opariren bat.

6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute.

Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
- Beste lasterkari batena den dortsala eta/edo txipa daramatenak.
- Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
- Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.

- Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

9. ARTIKULUA.- SARIAK

1. Gizonezkoa/emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txeketa: 200€
2. Gizonezkoa/emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txeketa: 100€
3. Gizonezkoa/emakumezkoa	Garaikurra + Super Amarako erosketa txeketa: 50€
4-5. Gizonezkoa/emakumezkoa	Garaikurra

Lehenengo 3 koadrilentzako: gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak. 4 pertsonentzako sariak. Koadrilen sailkapena talde bakoitzeko lehenengo sailkatutako 4ren postuak batuta egingo da eta postu txikienetik handienara ordenatuko dira. Berdinketa gertatzen bada, helmugan sartzen den 4.ak daukan posturik onenak irabaziko du.

10. ARTIKULUA - DUTXA, ARROPAK JASOTZEA ETA APARKALEKUA

Dutxak eta aldagelak Artaleku kiroldegian egongo dira, irteera eta helmuga puntuaren ondoan dagoena. Luis Marianoko irteera puntutik 50 metrora arropa jaso eta gordetzeko zerbitzu bat egongo da. Autoz iritsiko diren haienentzat ondorengo aparkalekuak erabiltzea gomendatzen dugu: San Juan plaza, Ficoba (dohain) edo Colon ibilbidea.

11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenentzat datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behe, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.